

Fantasia eta Arrazoia

KR O E



Fantasia eta Arrazoia

GOYAREN ESTANPAK ARABAKO ARTE
EDERREN MUSEOKO BILDUMAN

Francisco Goyaren (1746-1828) lau estampa serie handiak, *Kapritxoak*, *Gerraren hondamendiak*, *Tauromakia* eta *Burugabekeriak*, 2022an sartu ziren Arabako Arte Ederren Museoaren bilduman, Juan Celaya Letamendi Fundazioak Arabako Foru Aldundiarekin zituen zerga zorraz gauzatan ordaintzeko edo zorraz kitatzeko emanda.

Dokumentatu, katalogatu eta aztertu ondoren, Arabako Foru Aldundiko Zaharberitze Zerbitzuak horietan esku hartu du, eta, orain, lehen aldiz erakutsiko dira estampa guztiak batera.

Bai *Kapritxoak* (1799), bai *Tauromakia* (1816) artistak berak argitaratu zituen, eta salmenta iragarri zuen Madrilgo prentsan. *Hondamendiak* eta *Burugabekeriak*, aldiz, ez ziren Goya bizirik zegoela argitaratu, eta ez ziren argitara eman, harik eta San Fernandoko Arte Ederren Errege Akademiak kobrezko xafak erosi zituen arte: 1863an eta 1864an, hurrenez hurren. Serieetako hiru, *Kapritxoak*, *Gerraren hondamendiak* eta *Burugabekeriak*, lehenengo edizioak dira; *Tauromakia*, berriaz, bigarren edizioa da.

Goyak gizakiaren esentziaz eta hark gizartean duen portaez duen begiradaren gaurkotasuna da haren lana gaur egungo gizon eta emakumeentzat erreferente izaten jarraitzeko arrazoi bat, bai eta sortzaile eta intelektual garaikideentzat –idazleentzat eta era guztietako artistentzat– inspirazio iturri izatekoa ere. Lau serie handi hauetan gerrak, eguneroko indarkeria, gehiegikeriak edo bidegabekeriak agertzen dira; ikuslea interpelatzen dute, eta hausnarketa ahalegina eskatzen digute irudi bakoitzaren interpretazio pertsonala egiteko.

Kapritxoak 1797-1799

1. edizioa, 1799

Kapritxoak laurogei estanpako bilduma bat da, 1799an Francisco Goyak berak argitaratua. Liburu gisa sortu zen, eta artista-ren bizitzako une garrantzitsu batean argitaratu: Floridako San Antonio ermitako horma pinturak inauguratu berri zituzten, eta Karlos IV.ak ganberako lehen margolari izendatu berri zuen.

1799ko otsailaren 6an iragarri zen salmenta, *Diario de Madrid* egunkarian argitaratutako iragarki baten bidez. Litekeena da artistaren lagun Leandro Fernández Moratín idazleak lagundu izana egilearen xede kritikoen eta erreformatzaileen berri ematen zuen testua idazten. Iragarkian adierazten zen Madrilgo Desengaño kaleko drogeria batean erosi zitezkeela estanpak; hain zuzen ere, Goya bizi zen kalean. 320 errealeko prezioa nolabaiteko gaitasun ekonomikoa zuten pertsonen soilik ordain zezaketen.

Kapritxoak seriean, Goyak gizarteko sektore guztien giza jokabidea kritikatu zuen. Gaiak, bildumaren egituraren barruan elkarren segidako ordena batean antolatuta ez badaude ere, lau talde handitan multzokatu daitezke: lehenengoan, gizonen eta emakumeen arteko harremanen, prostituzioaren eta hitzartutako ezkontzen engainua nabarmentzen dira; bigarrenan, haurrak gaizki heztea eta horren ondorioak, hala nola sineskeriak, ezjakintasuna eta sorginkeria; hirugarrenean, gizarte estamentuen akatsak gaitzesten dira, bereziki kleroarenak, eta, azkenik, laugarrenean, botere egituren bidegabekeriak eta gehiegikeriak kritikatzeko dira.

Goyak akuafortearen erabilpena irudiak definitzeko, eta, ondoren, urtinta gehitzen zuen, itzalen eta argien bidez eszenei bolumena emateko.

Agian Inkisizioak estanpen edukiaren ondorioz errepre-saliak hartzearen beldur zelako, Goyak seriea saltzeari utzi zion, 1799ko otsailaren 19an *Gaceta de Madrid* egunkarian bigarren iragarki bat argitaratu ondoren. 1803an, Karlos IV.a erregeari eman zizkion xaflak, bai eta 300 ale inguruko tiradatik saldu gabe geratu ziren 240 ale ere, Javier Goya semearentzako pentsio baten truke eta obra babesteko. Erregeak material hori Kalkografia Nazionalari laga zion, eta erakunde horrek edizio ugari eginarazi zituen ordutik aurrera. Kalkografia Nazionala San Fernandoko Akademiaren babespean zegoen, eta 1983tik aurrera, akademiak xaflak berriz ez editatzea erabaki zuen, behar bezala kontserbatzeko.

Estanpa asko anbiguoak zirenez, argitaratzean, eskuz idatzitako iruzkin anonimo batzuk erantsi zituzten, konposizioen esanahia azaltzeko. Ezagunenak eta garrantzitsuenak hauek dira: ustez Goyak berak idatzi zituenak eta Prado museoan gordeta dagoen orri batean jasota daudenak; *Ayalarenak* esaten zaienak, Adelardo López Ayala politikariak eta dramagileak idatziak, eta, azkenik, Liburutegi Nazionalan daudenak. Arabako Arte Ederren Museoan dagoen aleak iruzkinak dituzten zazpi orrialde ditu, eta horiek antz handia dute *Sánchez Gerona* izenez ezagunak direnekin, zeinak Berlingo Staatliche Museenen baitaude eta *Sátiras de Goya* izenburua baitute.

Arabako Arte Ederren Museoko alearen koadernaketa ez da garai hartako jatorrizkoa, baina berriki egin den kontserbazio-tratamenduaren ondoren, seriea sortu zeneko espiritua errespetatu nahi izan da; alegia, liburu formatua, estanpen edukia irakurtzeko, haien testuinguru orokorraren barruan.



Kapritxoak 26.
Badute aulkia.

Kapritxoak 53.
A zelako etorria!

Gerraren hondamendiak 1810-1815

1. edizioa, San Fernandoko Arte Ederren Errege Akademia, 1863

Laurogei estanzos osatutako seriea ez zen artista bizirik zela argitaratu, ziurrenik unea ez zelako egokiena, Independentzia Gerra eta Fernando VII.a boterera itzuli ondorego errepresioa eta zentsura zirela eta. Gainera, jorratutako gaia ere kontuan hartu behar da: gerrari lotutako irudien gordintasunak oroitzapen mingarriak ekarriko zituen, eta, beraz, beharbada, publikoak ez zion harrera ona egingo. Arrazoi horientatik guztiengatik, ziur aski, xaflak Goyaren etxean, Gorraren Etxaldean, gorde zituzten, margolariak 1824an Bordelera alde egin eta gero. Artista hil zenean, Javier semearen esku geratu ziren, 1854an hil zen arte. Hainbat gorabeheraren ondoren, 1862an San Fernandoko Errege Akademiak eskuratu zituen, eta, urtebete geroago, lehen aldiz argitaratu.

Akademiak errespetatu egin zituen Goya bizirik zela inprimatutako ale bakarraren ordena eta legendak. Margolariak Juan Agustín Ceán Bermúdez lagunari oparitu zion ale hura. Titulu orokorrari dagokionez, *Buonaparteren aurkako Espainiako gerra odoltsuaren zorigaiztoko ondorioak. Eta beste kapritxo enfatiko batzuk jatorrizko izenburuaren ordez, Gerraren hondamendiak jarri zion erakundeak.*

Grabatuetan ikus dezakegun datarik goiztiarrena 1810 bada ere, baliteke 1808an Zaragozara egindako bisitaren ondoren hasi izana marrazkiak prestatzen. Frantsesen aurkako hiriaren defentsa heroikoaren berri eman zezan Palofox jeneralak deituta joan zen Goya Zaragozara. Han, bertatik bertara ikusi zituen setioak eragindako «gerraren hondamendiak». Azken xaflak, ordea, 1814 eta 1815 artean grabatu zituen, gerra amaitu eta berehala.

Seriea hiru zatitan egituratzen da, nahiz eta gai batzuk atal bakoitzean errepikatzen diren. Lehenengo zatia 2-47 estanzos osatzen dute, eta indarkeria belikoaren alderdi ezberdinak erakusten ditu: Frantziako soldaduen eta Espainiako zibilen arteko borrokak, emakumeen bortxaketak, borrokalarien exekuzio basatiak, herritarren ihesa, eta, batez ere, leku guztietan dagoen heriotza.

Bigarren zatia 48-64 estanzos osatzen dute, eta gatazka belikoaren ondoriozko goseak biztanlerian eragindako sufrimenduak irudikatzen ditu. Eszenak zenbait erreferentzia arkitektoniko dituen atmosfera trinkoko hiri ingurune batean garatzen dira. Behartsuen kontura aberasten diren espekulatuzaileen aurkako kritika ere egiten da. Irudiak oro har, ikaragarriak dira, zama dramatiko biziagatik.

65 estanzatik azkenera artekoek osatzen dute hirugarren eta azken zatia, *Kapritxo enfatikoak* izenez ezagutzen dena, eta gerra amaitu eta absolutismoa itzuli ondorengo errepresioaren zenbait alderdi erakusten ditu alegorien bidez. Estampa horietan, hizkuntza bisuala anbiguoagoa da, gobernu absolutistarekiko kritikek artista arriskuan jar ez zezaten.

Gerraren hondamendiak seriea indarkeriari eta haren ondorioei buruzko adierazpen artistiko handi eta onenetako bat da. Heriotza da protagonista nagusia, eta dena ardatzen da haren inguruan. Zoriturrez, gaurkotasuna izaten jarraitzen du, gaur egun ere egoera gehiegitan islatzen baita haren edukia. Goyaren beste lan batzuen antzera, seriea, balio formalengatik nabarmentzeaz gain, gizakiaren indarkeria berezkoa eta etengabea dela kritikatzegatik nabarmentzen da.



Gerraren Hondamendiak 1.
Gertatuko denari buruzko susmo tristeak.

Gerraren hondamendiak 39.
Balentria itzela! Hildakoeekin!



Tauromakia 1816

2. edizioa, Kalkografia Nazionalean estanpatua, 1855

Goyak hogeita hamahiru estanpako serie hau 1816an jarri zuen salgai. Xaflak Goyaren ondorengoen esku geratu ziren, eta, ziur aski, 1855ean saldu zituzten, eta orduan egin zen bigarren edizioa, Kalkografia Nazionaleko torkuluetan.

Goyak, serie hau sortu zuenean, herrialdeko egoera politikoak eragindako zailtasunak zituen. Independentzia Gerrak eta Fernando VII.aren itzulerak ondorio negatiboak ekarri zizkioten artistari, bai arlo profesionalean, bai pertsonalean. Erregearen lehen margolari kargua izaten jarraitu bazuen ere, koroaren eta eliteen enkarguak nabarmen murriztu ziren, eta lagun askok erbestera joan behar izan zuten. Egoera hori dela eta, marrazkigintzan eta grabatuan aritu zen batez ere.

Tauromakia seriean gai herrikoi batera jo zuen, itxuraz zentsuratu zitekeen eduki ideologikorik ez zuen gai batera. Gainera, zezen estanpen beste serie batzuek –hala nola Antonio Carnicerorenak– arrakasta izan zuten, serie horrek diru sarrera gehigarriak ekarri ziezazkiokeen artistari. Baina Goya, beste behin ere, gai komertzial baten ikuspegi topikotik urrundu zen erabat, eta festaren indarkeriarekiko ikuspegi kritikoa izan zuen.

1816aren amaieran, prentsan iragarri zen seriearen salmenta –*Diario de Madrid* eta *Gaceta de Madrid* egunkarietan–; Kale

Nagusiko estanpen biltegi batean zegoen salgai, 300 errealeko prezioan 33 estanpako serie osoa, eta 10 errealetan estanpa bakoitza, solte erosiz gero. Planteamendu horrek adierazten du Goyak seriea ahalik eta gehien zabaltzea eta saltzea lortzeko asmoa zuela, nahiz eta azkenean merkataritza porrota izan zen. Jendea, karga tragiko txikiagoko estanpetarako ohitua, ez zen gai izan seriearen zenbait alderdi balioesteko; gizakien eta animalien arteko borrokaren inguruko irudi gordinak eta akuaforrea eta urtinta konbinatzearen ondoriozko argilun biziak, esaterako.

Tauromakia serieko estanpek ez daukate legendarik; ordena zenbakia baino ez dute goiko parteko eskuinaldean. Alabaina, badirudi grabatuei tituluak gehitzeko asmoa izan izan zela. Goyak berak eskuz idatzitako testuak dituen lehen edizioa Bostongo Liburutegi Publikoan gordetzen da, eta beste ale bat, Goyak Ceán Bermúdez lagunari eman ziona izenburua eta epigrafeak jar zitzaizkion, British Museumean bilduman dago. Artistak ordena kronologiko bat ezarri zuen serierako, zeina bi zatitan bana baitaiteke: lehenak Espainiako tauromakiaren historiaren berri ematen du –Antzinaroa, musulmanen nagusitasunaren garaia eta Errenazimendua–; bigarrenak, berriz, Goyaren garaiko eta aurreko toreatzaileak protagonista dituzten eszenak ditu. Seriea Pepe Illo toreatzailearen heriotzari buruzko estanpa batez amaitzea erabaki zuen, garai hartan oihartzun handia izan zuen gertaera tragiko batekin, alegia.

Tauromakiaren lehen bi edizioetan –lehen 1816koa eta bigarrena 1855ekoa–, 33 estanpa zenbakitu daude, eta hurrengo edizioetan zazpi irudi gehitu ziren, egileak baztertu zituenak eta xaffen atzealdean grabatuta zeudenak.

Tauromakia 15.
Martincho ospetsua, iskin egitean banderillak jartzen.



Tauromakia 28.
Rendon saiatua zezen bat pikatzen; lantze horretan hil zen Madrilgo plazan.



Burugabekeriak [Atsotitzak]

1815-1824

1. edizioa, San Fernandoko Arte Ederren Errege Akademia, 1864

Hau da Goyak sortutako lau grabatu serie handietatik egin zuen azkena, *Tauromakia* amaitu eta berehala.

Goyak 22 estanpa grabatu zituen, baina artistaren heriotzatik 36 urte igaro ondoren argitaratu zen *Burugabekeriak* seriearen lehenengo edizioan hamazortzi besterik ez daude; izan ere, XIX. mendearen erdialdean, Goyaren biloba Mariok lau kobre eman zizkion Eugenio Lucas margolariari, eta horiek Frantzian argitaratu ziren *L'Art* aldizkarian, 1877an. 1862an, San Fernandoko Arte Ederren Akademiak gainerako kobreak erosi zituen, eta 1864an argitaratu zituen lehen aldiz. Salmentarako 300 ale argitaratu zituen, eta akademikoentzako 60. Xaflak zenbakituta ez zeudenez eta Goyak berak egindako alerik aurkitu ez denez, lehenengo edizioak ordena arbitrarioa izan zuen.

Azken azterlanen arabera, Goya 1815ean hasi zen seriea prestatzen, eta 1824ra arte aritu zen hartan lanean. Seriea amaitu gabe geratu zen zenbait arrazoiengatik; besteak beste, 1819an Manzanares ibaiaren ertzeko etxe batera aldatu zelako, urte horren amaieran gaixotu zelako eta 1824an Frantziara alde egin zuelako. Kobrezko hamazortzi xaflak Espainian geratu ziren biltegiarata, Goyaren etxean, Gorraren Etxaldean. Goya Bordelen hil zen 1828an, seriea argitaratu gabe.

Gaur egun, seriea *Burugabekeriak* izenburuz da ezaguna, baina aurretik *Kapritxoak*, *Ametsak* eta *Atsotitzak* izenak izan ditu. Atsotitzak izenburua da, hain zuzen ere, lehen edizioaren alearen azalean inprimatuta ageri dena. San Fernandoko Arte Ederren Akademiak *Atsotitzak* izenburua aukeratu zuen irudiak erretrau herrikoiei buruzkoak zirela uste izan zuelako, baina 1918tik aurrera *Burugabekeriak* titulua finkatu zen. Izena aldatzeko arrazoia zenbait egoera probaren aurkikuntza izan zen, zeintzuek Goyak berak eskuz idatzitako izenburuak baitzituzten. Izenburu horiek *burugabekeria* hitzarekin hasten ziren, eta ondoren adjektibo edo osagarri bat zeukaten.

Serie horren sormen prozesua hasierako marrazkietatik azken emaitzara arte aztertuz gero, argi ikusten da zer nolako askatasunez jokatu zuen Goyak eta zein aditua zen baliabide grafikoan bere bizitzaren azken garai hartan. Lerroak zuzenean egiten zituen xaflaren gainean, trazu sendoz. Bestalde, urtintak gaueko atmosfera eta giro zapaltzailea sortzen du, serie osoaren ezaugarri dena eta irudien azken emaitzan erabakigarria dena.

Zenbait faktoreren ondorioz, zaila gertatzen da serie hau interpretatzea. Konposizioak eta izenburuak formalki anbiguoak izateaz gain, seriea amaitu gabe geratu zen, eta, gainera, ez dago artistaren beraren alerik, estanpen ordena zein zen jakiteko, eta, horrez gain, ez dago garaiko inolako erreferentziarik. Ikertzaileek hainbat ikuspuntutatik heldu diote seriearen balizko esanahiari: batzuek adineko gizon gaixo baten subkontzientearen iruditat hartu dituzte estanpak; beste batzuek aurreko lan guztietan agertutako gai kritikoen laburpentzat jo dute seriea; beste zenbaitek, Espainiako gizartearen alegoriatzat, inauterien, zirkuaren eta linterna magikoko ikuskizunen bidez adierazia, eta, beste zenbaitek, absolutisten, liberal moderatuen eta liberal sutsuen arteko liskarrak nagusi ziren garaiko egoera politiko nahasiaren adierazpentzat. Ikusleak gaueko munduari egin behar dio aurre. Mundu hori burugabea eta itxuraz zentzurik gabea da, eta horrek behar bezala ulertzea zailtzen du; izan ere, Goyak artista moderno gisa jardun zuen, eta botere absolutua eman zion irudimenari.



Burugabekeriak 3.
Burugabekeria barregarria

Burugabekeriak 4.
[Kokoloa]



Koordinatzailea

Sara González de Aspuru Hidalgo
Begoña Bravo María
Arabako Arte Ederren Museoa
AARE Servicios Culturales

Testuak

José Manuel Matilla. Pradoko Museo Nazionala
Arabako Arte Ederren Museoa

Testuen itzulpenak

Arabako Foru Aldundiaren Euskera Zerbitzua

Kontserbazioa eta Zaharberritzea

Arabako Foru Aldundiaren Zaharberritze Zerbitzua

Argazkiak

©Endika Portillo

Diseinu grafikoa

Humanos Unidos

Erakusketa diseinua

Ocurrencias


Argitaratzailea

Arabako Foru Aldundia
Kultura eta Kirol Saila

Inprimatzailea

Arabako Foru Aldundiaren Moldiztegia

Lege gordailua



2026ko maiatza/2027ko otsaila


Arabako Arte Ederren Museoa

Frai Francisco ibilbidea, 8
01007 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 18 19 18
www.arteederrenmuseoa.eus
museobellasartes@araba.eus

Ordutegia

Asteartetik larunbatera
10:00 - 14:00 eta 16:00 - 18:30
Igande eta jaiegunetan
11:00 - 14:00
Astelehenetan itxita
(jaiegunetan izan ezik)
Ikusi salbuespenak

Sarrera doan



Arabako Arte Ederren Museoa
Museo de Bellas Artes de Álava

araba **álava**
foru aldundia diputación foral